

EUSKAL SOZIOMETROA 73
(2021eko ekaina)
Prentsa oharra

SARRERA

73. Euskal Soziometroak seriearen garai berri bati hasiera ematen dio. Aldaketa metodologikoak izan ditu, besteak beste, etxez etxeko informazio bilketaren ordez telefono bidezkoa erabiltzea. Horrek hainbat ondorio izango ditu, eta aurreko urteekin alderatuta, bildutako datuak aldatu egingo dira.

Gainera, urte honetatik aurrera, Euskal Soziometroek "Egoeraren balorazioa" eta "Jarrera eta balio politikoak" ataletan jasotako aldizkako jarraipen-gaiak baino ez dituzte jasoko.

EGOERAREN BALORAZIOA

Hobekuntza espero da

EAEko biztanleek 6,9 punturekin baloratu dute beren egungo egoera orokorra, 0tik 10era bitarteko eskalan, eta hobetzeko joera ikusten dute, bai atzera begirakoa, zein aurrera begirakoa. Hala, 6,3 puntu eman dizkiote duela urtebeteko egoerari, eta 7,2 puntu urtebete barru izango dutela aurreikusten dutenari.

Gaur egun, Euskadiko egoeraren balorazioa 5,6 puntukoa da; duela urtebete 5,2 puntukoa zela uste da, eta urtebete barrurako itxaropena 6,3 puntukoa da.

Espainiako egoera apur bat okerrago ikusten da, 4,5 puntu gaur egun; hala ere, han ere hobetzeko joera dagoela uste dute herritarrek, 4,1 punturekin baloratu dute duela urtebeteko egoera eta 5,1ekin urtebete barrukoa.

Euskadiko arazo nagusiei dagokienez, herritarrek lan-merkatuarekin lotutakoak aipatu dituzte gehien, % 68k hiru arazo nagusien artean. Bigarrenik, COVID pandemiarekin lotutako arazoak agertzen dira (% 39). Jarraian aipatu dira egoera politikoa, politikoak eta gatazka politikoa (% 20), arazo ekonomikoak (% 18), Osakidetza eta osasuna oro har (%18), etxebizitza eta etxegabetzeak (%10) eta immigrazioarekin eta arrazakeriarekin lotutako arazoak (% 6).

EAEko biztanleen % 40 "erabat ados" daude beren herria edo hiria bizitzeko leku segurua dela esaterakoan, eta % 50 "gehienbat ados" agertu dira.

Lan-egoera pertsonalari dagokionez, % 23k diote oso ona dela eta % 50ek nahikoa ona. % 14k nahikoa txartzat jotzen dute, eta % 8k oso txartzat.

Osasun pertsonalari dagokionez, biztanleriaren % 26k dio oso ona dela eta % 46k ona. % 23k uste du hala-holakoa dela, eta soilik % 6k txarra edo oso txarra dela.

Pobreziatik (0) aberastasunera (10) doan eskalan duten kokapena zehaztean, herritarrek batez beste 5,7 puntutan kokatu dute beren burua gaur egun, eta haurtzaroan 5,6 puntutan zeudela uste dute. Gainera, bere seme-alabak ekonomikoki hobeto egongo direla uste dute, 6,1 puntutan hain zuzen ere.

Biztanle gehienek (% 54) uste dute beren bizitzan zehar ez dela asko aldatu beren egoera eskala horretan; % 26k uste dute hobera egin duela eta % 20k bakarrik okerrera egin duela.

Seme-alabentzat espero dutenari dagokionez, % 62k uste dute eurek orain duten maila berean mantenduko direla, % 24k uste dute hobera egingo dutela eta soilik % 14k okerrera.

JARRERA ETA BALIO POLITIKOAK

Euskadiko demokraziarekiko eta giza eskubideen errespetuarekiko poztasuna

EAEko biztanleen % 36k adierazi dute politikan "interes handia edo nahikoa" dutela, eta % 63k "gutxi edo batere ez". Gainera, % 15 alderdi politikoren batetik oso edo nahikoa hurbil sentitzen dira, eta % 18, berriz, apur bat. Bi herenek diote ez direla oso hurbil edo batere hurbil sentitzen.

Alderdi politiko bakar batek ere ez du lortu herritarren 5etik gorako puntuazioa. EAJ-PNVk lortu du puntuaziorik altuena (4,8 puntu 0tik 10erako eskalan), ondoren PSE-EE (3,9), EHBILDU (3,7) eta Elkarrekin Podemos (3,5) daude. Gutxien baloratutako alderdiak PP+Ciudadanos (1,8) eta Vox (0,7) dira.

Buruzagi politikoei dagokienez, baloraziorik altuena Iñigo Urkullu lehendakariari dagokio (5,3 0tik 10erako eskalan), eta ondoren Maddalen Iriarteri (5,0). Atzetik datoz Idoia Mendia (4,6) eta Miren Gorrotxategi (4,5) eta, azkenik, Amaia Martinez (2,3) eta Carlos Iturgaiz (2,0).

Herritarren % 53 oso edo nahiko pozik daude demokraziak Euskadin duen funtzionamenduarekin, eta % 23 Espainian duenarekin.

Halaber, herritarren % 65 oso edo nahiko pozik daude Euskadin giza eskubideek duten errespetuarekin, eta % 36 Espainian dutenarekin.

Independentziari buruzko jarrerari dagokionez, herritarren % 41 kontra leudeke, % 32 alde edo kontra, egoeraren arabera, eta % 21 independentziaren alde. Soilik biztanleen % 6k ez diote galderari erantzun.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 3.333 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm\%$ 1,7koa da EAE osorako, % 95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2021eko maiatzaren 17tik 21era bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

http://www.euskadi.eus/ikerketa_soziologikoak

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 9a